**Elgoibarko Izarraren**

# 2014ko kudeaketa plana

## Etapa berriaren lehen urratsa

## AURKIBIDEA


1.
2. Sarrera
3. Erronkak eta estrategiak
4. Helburuak
5. Bestelako jarduerak eta ekimenak
6. Zainduko ditugun oinarriak eta printzipioak:

   5.1. Parte-hartzea eta konpromisoa.
   5.2. Izana eta komunitatea.
   5.3. Eragin.
   5.4. Egin.
   5.5. Inguruko herriak eta nazioa.
   5.6. Elkarlana eta aliantzak.
   5.7. Lidergoa.
   5.8. Formazioa.
   5.9. Komunikazioa.

7. Aurrekontua
8. Eranskinak:

   a. Helburu-fitxak.

## 1. SARRERA

Aurretik ere esan dugu behin baino gehiagotan 2014an ziklo berri batean sartuko garela. 50 urteko lanaren ondoren, Elgoibarko Izarrak etapa berri bati ekin nahi dio. Azken helburua betikoa izango da, Elgoibar euskalduntzea, baina, orain arteko estrategiak, bitarteko helburuak edo-eta lan egiteko moduak berraztertu eta egokitu egingo ditugu. Edo, beharbada, zer egingo dugun eta zelan egingo dugun orain arte baino hobeto edo sakonago identifikatzen eta jasotzen saiatuko gara.

Eta aldatuko ditugun gauzen artean, dokumentu hau bera ere badaukagu. Orain arteko *asmoak eta aurrekontuak* dokumentuaren egitura eta estiloa alde batera laga, eta urteroko kudeaketa-planak jasoko dituen dokumentua presatu dugu. Egitura berriaren oinarrian urteko helburuak eta ekintza-planak daude. Pentsatu dugu hori dela kudeaketa-planaren oinarria, eta horri emango diogu garrantzia. Urteko helburuak eta helburu bakoitzaren ekintza-planak ahalik eta argien jaso ditugu, eta hori izango da kudeaketa-plana dokumentuaren muina.

Hurrengo orrietan ikusiko dugun moduan, 2014an 3 erronka izango ditugu, batez ere, gure jomugan. Horien bila abiatuko gara urtarrilaren 2tik aurrera, eta horretarako hainbat estrategia eta helburu identifikatu eta onartu ditugu. Ia dena prest daukagu, eta ikusiko dugun moduan, asko da egin eta lortu nahi duguna. Baina ilusioz eta energiaz beteta iritsi gara etapa berriaren atarira, eta gure onena emateko prest gaude.

Prozesu berri bati ekitera goaz, energiaz beteta gaude, baina badakigu haizea ez dugula beti alde izango. Luzea da egiteke dugun bidea, eta badakizu zuloak eta trabak guk nahi baino gehiago izango direla. Denbora gehiago itxaron gabe, hasi egingo gara.

Zuzendaritza Batzordea

## 2. ERRONKAK ETA ESTRATEGIAK

Lau dira 2014-2016 urteetarako onartu ditugun erronkak, baina 2014an lehen hiru erronketan zentratuko gara, batez ere. Herriko euskaltzaleen artikulazioa da laugarren erronka, baina erronka horri 2015ean helduko diogu adarretatik, 2014ak zer eman duen aztertu ondoren

Ikus ditzagun, beraz, 2014an landuko ditugun hiru erronkak:

- Elgoibarko Izarraren bueltako hizkuntz komunitatea osatzea eta saretzea.
- Elgoibarko Izarra ekonomikoki bideragarria izatea.
- Elgoibarren euskaltasuna sustatu eta euskararen erabilera areagotzea.

Erronka bakoitzaren atzean, berriz, estrategia batzuk identifikatu ditugu, eta horiek dira segidan ikusi eta azalduko dituguna:

| **Erronka** | **Elgoibarko Izarraren bueltako hizkuntz komunitatea osatzea eta saretzea.** |
|---|---|
| **Estrategiak** | ▪ Bazkideen parte-hartzea eta konpromisoa sustatzea.<br>▪ Hedabide proiektuaren bueltan komunitate sendoa osatzea |
| **Azalpena** | Oinarri filosofikoetan jaso genuen euskaltzaleon hizkuntz komunitatea egituratzea edo artikulatzea zela gure zeregin nagusietakoa. Zeregin horri ekingo diogu 2014an. Eta horretarako, zerrendatu ditugun hiru estrategiak jarriko ditugu martxan. Euskararen aldeko herri-mugimendua izan nahi dugunez, bazkideak izango dira mugimenduaren muina, eta horien parte-hartzea eta konpromisoa da ezer baino lehen sustatu behar duguna. Gainera, egun elkartean dauzkagun bi proiektu sendoenak baliatuko ditugu haien bueltan mikro-komunitate bana egituratzen hasteko. |

| **Erronka** | **Elgoibarko Izarra ekonomikoki bideragarria izatea.** |
|---|---|
| **Estrategiak** | ▪ Diru-laguntzak mantentzea edo gehitzea.<br>▪ Zerbitzugintza sustatzea.<br>▪ Bazkideen eta herritarren diru-emana gehitzea.<br>▪ Elkarteko baliabideen aprobetxamendua optimizatzea. |
| **Azalpena** | Ezinbestekoa da elkartea ekonomikoki bideragarria izatea aurrera egin nahi badugu. Elkartearen bideragarritasun ekonomikoa lortu behar du. Lau estrategia onartu ditugu horretarako hurrengo hiru urteetarako, eta poliki-poliki bada ere, hasi egingo gara lau estrategiak urratzen. |

| **Erronka** | **Euskararen erabilera eta euskalduntasuna areagotzea** |
|---|---|
| **Estrategiak** | ▪ Egungo komunikazio-proiektuari eutsi eta hedabideei lotutako proiektua berregituratzea.<br>▪ Umeen eta nerabeen mundua euskalduntzea.<br>▪ 18 urtetik gorakoen euskalduntasuna sustatzea. |
| **Azalpena** | Erronka hau zentrala da guretzat. Elgoibar euskalduntzea da gure egitekoa, eta horretarako ezinbestekoak dira euskararen erabilera eta euskalduntasuna sustatzea. Hiru estrategia nagusi onartu ditugu, baina estrategia bakoitzaren baitan, aurrerago ikusiko dugun moduan, helburuak eta zereginak asko dira. 2014an ekin egingo diogu, eta ikusiko dugu zenbateko ibilbidea egiten dugun hurrengo hiru urteetan. |

## 3. HELBURUAK

Erronkak eta estrategiak ikusi ondoren, 2014an landuko ditugun helburuei erreparatuko diegu segidan. 21 dira 2014an landuko ditugun helburuak. Segidan ikusiko ditugu, lehen hiru erronken arabera sailkatuta (gogoratu aurten ez dugula laugarren erronka landuko):

- **Elgoibarko Izarraren bueltako hizkuntz komunitatea saretzeko:**
    - Lantalde profesionala kohesionatzea.
    - 50 bazkide gehiago lortzea.
    - Eremu Sinbolikoa osatu eta elikadura-sistema adostea.
    - Bazkideen parte-hartzea eta konpromisoa sustatu duen proiektua onartu eta martxan jartzea.
- **Elkartea ekonomikoki bideragarria izateko:**
    - BARRENen hiru urterako komunitate ekonomikoa osatu eta lehen diru-emanak jasotzea.
    - Udalaren diru-laguntzak mantentzea eta legealdirako hitzarmenak lortzeko negoziazioei ekitea.
    - Zerbitzu-gida osatu eta eskaintzea.
    - Elkartearen eskaintzen prezio-sistema martxan jartzea.
    - Elkartea diruz lagunduko duten aliatuak eta mezenasak topatzea.
    - Dirua biltzeko programa prestatu eta egitea.
    - Bazkide-kuotak eguneratzea.
    - Bazkide profesionalak enpresa baten bueltan biltzeko aukerak aztertzea.
    - Aurrekontuei lotutako irizpide ekonomikoak zehaztea.
    - Elkarteko lan-funtzionamendua hobetzea.
- **Elgoibarren euskararen erabilera areagotzea:**
    - BARRENen 42 ale kaleratzea eta web gunea egunero (aste barruan) elikatzea.
    - Komunikazio proiektu berria prestatzea.
    - Euskal kontzientzia sustatuko duen taldea osatu eta bi urterako programa prestatzea.
    - 13-17 urte bitarteko nerabeen euskal kontzientzia sustatzea.
    - Ume eta gazteen eragin-esparruak euskalduntzea.
    - 0-6 urteko haurren familietan eragitea.
    - Aisialdi eskaintza sendoa eta iraunkorra eskaintzea.

*Oharra: Helburu-fitxa guztiak dokumentuaren amaieran bildu ditugu, helburu bakoitzaren barrunbeak hobeto ikusteko.*

## 4. BESTELAKO EKIMENAK ETA JARDUERAK

Helburu-fitxetan jaso dugu, batez ere, 2014an egin nahi duguna, baina helburu-fitxetan ez dago egin nahi dugun guztia. Hona helburu-fitxetan jaso ez baina 2014an egingo ditugun beste ekimen edo programa batzuk.

| Zeregina edo ekimena | Saila | Arduraduna |
|---|---|---|
| *Tertuliak* programa | Ekonomia saila | Amaia Lasagabaster |
| Ekipamenduen etorkizuna | Atxutxiamaika | Naiara Martin |
| Santa Ageda eskea | Idazkaritza | Imanol Larrañaga |
| Eguberrietako bertso-jaialdia | Idazkaritza | Imanol Larrañaga |
| (...) | | |

***Tertuliak* programa:** Orain arteko dinamikari eustea izango da programa honi aurtengorako jarritako helburu nagusia. 30 lagunek hartuko dute parte, eta horietatik 21 izango dira euskara jasotzeko izena ematen dutenak. 9, berriz, euskara emateko parte hartuko dute, batez ere. 2014an 7 lagun izango dira programan estreinakoz parte hartuko dutenak.

**Ludotekaren eta gaztelekuaren kudeaketaren gaineko erabakia:** 2014ko irailean, lizitazio berria dator. Aurreko bi lizitazioen ondoren, hirugarren lizitazioa izango da irailean eta ikusiko dugu zer pasatzen den. Udalak kontratuaren luzapena eskaintzen badigu, erabaki egin beharko dugu ludoteka eta gaztelekua kudeatzea interesatzen zaigun ala ez.

**Santa Ageda eskea:** 1993an hasi eta urtero-urtero egin dugun moduan, otsailaren 4an baserriz baserri irtengo gara kantuan eta eskean. Aurten asteartea da otsailak 4 eta arratsalde-iluntzean jardungo dugu.

**Eguberrietako bertso-jaialdia:** 1983an antolatu zen estreinakoz Eguberrietako bertso-jaialdia, eta ordutik ez dugu hutsik egin. Aurten ere bertsolariek eta bertsozaleek bat egingo dugu Herriko Antzokian.

## 5. LANDUKO DITUGUN OINARRIAK ETA PRINTZIPIOAK

50 urteko lan-jardunaren ondoren, Elgoibar euskalduna(goa) izateko herri-ahaleginarekin aurrera egitea erabaki dugu, eta horretarako, besteak beste, elkarteak aintzat hartuko dituen oinarri filosofikoak eztabaidatu eta onartu ditu. Asko dira erabakitako oinarri eta balioak, baina segidan datorrenari erreparatuko diogu bereziki.

Bost izango dira gure izaerari eta misioari lotuta bereziki zainduko ditugun atalak, eta 2014rako onartu ditugun helburu-fitxak aintzat hartuta egingo dugu hurrengo azterketa. Hortik aparte ere landuko dira han eta hemen, baina helburu-fitxetan zentratuko gara, horrek izango baitira gure helburu eta zeregin zentralak.

### 5.1. Parte-hartzea eta konpromisoa:

Bazkideen eta herritarren parte-hartzea (Elgoibarko Izarran) sustatzea da etapa berrirako gure buruari jarri diogun zeregin garrantzitsuenetakoa. Hori da mugimendu baten oinarrian egon behar duena, eta horren bila abiatuko gara 2014tik aurrera. Atal edo sail bakoitzean parte-hartzea eta konpromisoa zelan landuko dugun ikusiko dugun segidan, labur-labur bada ere:

- *Idazkaritzari dagokionez:*
    - Bazkide profesionalen parte-hartzea, kohesio-programan eta Eremu Sinbolikoaren egitasmoan (dedikazio profesionalari lotuta ez dauden ekimenetan).
    - Bazkide militanteen parte-hartzea, Eremu Sinbolikoaren programan.
    - Herritarren konpromisoa, bazkide izateko gonbitea eginez.
- *Ekonomia batzordeari dagokionez:*
    - Bazkide profesionalena, eta bazkide militanteena (ahal den neurrian), zerbitzugintzan.
    - Bazkide profesionalena (eta militanteena), autofinantzazio-programan.
    - Bazkideena, oro har, bazkide-kuota berrien aurrean.
    - Herritar batzuena, aliatuak edo mezenas programarekin.
- *Komunikabide sailari dagokionez:*
    - Herritarren konpromisoa (BARRENeko harpidedunena), BARRENeko komunitate-ekonomikoa proiektuan.
- *Atxutxiamaikari dagokionez:*
    - Hezitzaileen parte-hartzea eta konpromisoa Atxutxi-asanbladaren bidez

*Oharra: bazkideen parte-hartzea eta konpromisoa sustatzeko proiektu berezia idatzi da. Bertan zehatz-mehatz jaso dugu bazkide militanteen parte-hartzea eta konpromisoa nola sustatuko dugun.*

### 5.2. Zelan landuko dugu gure IZANA-KOMUNITATEA:

Azken 20-25 urteotan Elgoibarko Izarrak egindako lana jasotzen duen balorazio-dokumentuari erreparatzen badiogu, mugimenduaren izaera oso gutxi landu dugula ikusiko dugu. Egin bai, egin asko egin dugu, izugarri, baina ez gara egin dugunaren neurrikoak. Ez dugu euskaltzaleen mugimendua artikulatzea lortu; ez dugu elkartearen bueltako hizkuntz komunitatea egituratu. Elkartearen izana, komunitatearen artikulazioa, izango da etapa berrian bereziki landu nahi dugun atal bat.

- Idazkaritzari dagokionez: Eremu Sinbolikoaren proiektuarekin.
- Komunikabide sailari dagokionez: *BARREN lagunak* egitasmoarekin (nahiz eta 2014an arlo ekonomian jarriko dugun, bereziki, azpimarra).

### 5.3. Non ERAGINgo dugu:

Etapa berriko zereginetako bat da eragitea. Orain artean moduan, egiten segitu egingo dugu, baina besteengan eragiteari orain arte baino garrantzia handiagoa eman nahi diogu. Guk egin bai, baina inguruan eragitea ere gure zeregina izango da. Inguruko elkarte eta eragileak ere euskalgintzako agente bilakatzeko eragin behar dugu.

- Ekonomia batzordeari dagokionez: Udalean eragin nahi dugu, hitzarmengintzarekin.
- Atxutxiamaikari dagokionez:
    - Familietan eragin nahi dugu, familia proiektuarekin, gurasoak ere eragile izateko.
    - Elkarte-erakundeetan eragin nahi dugu, *Gurean Bai* programarekin, elkarte-erakunde horiek euskalgintzako agente izateko.

### 5.4. Zer EGINgo dugu:

Orain arte egin dugun moduan, aurrerantzean ere Elgoibar euskalduna(goa) izateko ekimenak prestatzen eta egiten segitu beharko dugu. Horretan ez dugu zalantzarik. Hori bai, egiten duguna ez dugu egin behar orain arte egin dugulako, egingo dugunak merezi duelako baizik. Elgoibar euskalduntzeko egin behar delako egingo dugu. Besteak beste, bi faktore baloratuko ditugu zer egin eta zer ez erabakitzerakoan: ekimenaren eraginkortasuna, eta ekimen horren bideragarritasun ekonomikoa.

- Idazkaritzari dagokionez:
    - Ohitura zaharrak sustatzeko: Santa Ageda eskea.
    - Bertsozaletasuna sustatzeko: Eguberrietako bertso-jaialdia.
    - Helduen euskaltasuna sustatzeko.

- Ekonomia batzordeari dagokionez:
    - Elkartearen bideragarritasun ekonomikoa sustatzeko:
        - Zerbitzu-gida
        - Autofinantziazio-ekimenak
    - Euskara-ikasleei ikaskuntza-prozesuan laguntzeko, *Tertuliak* programa.

- Komunikabide sailari dagokionez:
    - Herriko eta herritarren berri euskaraz jasotzeko:
        - BARREN astekaria, 42 astetan.
        - Elgoibarren.net, egunero (astelehenetik ostiralera)

- Atxutxiamaikari dagokionez:
    - Transmisioan etenik ez egoteko, familia-programa.
    - Aisialdi euskalduna eskaintzeko: aisialdi-ekintzak, bertso-eskola eta ekipamenduak.
    - Nerabeen eta gazteengan euskalduntasuna sustatzeko, 13-17 urteko nerabe-programa.

## 5.4. Zer egin-eragingo dugu INGURUKO HERRIETAN eta NAZIOAN?

Gure zeregin nagusia Elgoibar euskalduntzea bada ere, Euskal Herriko mugimendu bateko kide gara, eta, ondorioz, euskararen herria saretzen ere parte hartu behar dugu; hori ere bada gure zeregina. Beraz, Elgoibarren ez ezik, Elgoibartik kanpo ere egin eta eragin nahi dugu, ahal dugun neurrian.

- Idazkaritzari dagokionez:
    - Mugimendua indartzeko, Topaguneak eskatutako ekimenetan: ZB indartzeko batzordean ...
    - Nazio mailako proiektuei laguntzeko: Eperra ikastola ...

- Ekonomia batzordeari dagokionez: zerbitzugintza Elgoibartik kanpo ere sustatzen saiatuko gara.

- Komunikabide sailari dagokionez: Tokikom-etik etorriko denari adi egongo gara, proiektu komunikatiboa bailarako ere izan behar duen aztertzeko.

*Oharra: atal honetan Mendaroren kasua jarri nahi dugu mahai gainean. Mendaron, bertakoek nahi badute, asko egin eta eragiteko aukerak daudela aurreikusten dugu. Ziklo berrian, bertako eragileekin elkarlanean jarduteko aukerak ikusten ditugu, eta zerbitzugintza ere landu ahal dugu. Kontu honetan lidergoa hartzeko prest gaude, beti ere bertakoek nahi badute.*

### 5.6. Elkarlana eta aliantzak:

Elgoibar euskalduntzeko lanean, herriko elkarte, erakunde eta eragileekin behar baino gutxiago jardun dugula jaso dugu balorazio-txostenean. Hutsune hori bete nahi dugu etapa berrian. Elgoibar ezin du Elgoibarko Izarrak bakarrik euskaldundu, eta, gure ustez, ezinbestekoak dira euskalgintzan dihardugunon (eta jardungo dutenen) arteko elkarlana eta aliantzak.

- Ekonomia batzordeari dagokionez: Udalarekin eta alderdi politikoekin, hitzarmengintzaren haritik.

- Komunikabide sailari dagokionez: Tokikom-ekin eta bailarako elkarteekin, bailarako komunikazio-proiektuaren aukerak aztertzeko.

- Atxutxiamaikari dagokionez:
    - Ikastetxeekin, nerabeen euskalduntasunean eragiteko.
    - Elkarte-erakundeekin, haur eta nerabeen euskararen erabilera sustatzeko.
    - Elkarteekin (Morkaiko, Taupada...), elkarlanean umeentzako ekintzak antolatzeko
    - Ludotekarekin eta Gaztelekuarekin, aisialdi eskaintza orekatua eskaintzeko herrian
    - Euskara-elkarteetako aisialdi taldeekin indarrak batu eta elkarri laguntzeko (formazioa, materiala ...).

### 5.7. Lidergoa:

Etorkizuneko oinarri filosofikoetan onartu dugu euskalgintzan lidergoa hartzeko prest dagoela Elgoibarko Izarra. Behar eta ahal den kasuetan, eta besteek onartzen digutenean, prest gaude aitzindariak izateko; prest gaude euskalgintzan bideak urratu eta zabaltzeko. Elgoibarren egingo dugu hori, batez ere, baina baita herritik kanpo ere, behar eta ahal denean.

- Atxutxiamaikari dagokionez: herriko elkarte-eragileetan, haurren eta nerabeen euskararen erabileran eragiteko.

### 5.8. Formazioa:

Elkartearen etorkizuna jasotzeko (eta etorkizunari eusteko) beste zutabeetako bat izango da formazioa. Jakin egin behar dugu zertan eta zergatik dihardugun; jakin egin behar dugu euskalduntasuna sustatzeko zer eta zelan lan egin behar dugun. Asko ikasi eta jakin behar dugu bidean aurrera egiteko.

- Idazkaritzari dagokionez:
    - Elkarteko arima-bihotza janzteko, Eremu Sinbolikoari lotutako formazio-programaren bidez.
    - Bazkideak (profesionalak eta militanteak) eta herritarrak janzteko programarekin.

- Atxutxiamaikari dagokionez:
  - Gurasoak janzteko, familia planean.
  - Hezitzaileak janzteko, asanbladaren formazio-saioetan.
  - Ikasle nerabeen euskalduntasuna sustatzeko, nerabe-planean eta *Zergatik ez?* programarekin.
  - Elkarte eta erakundeetako eragileak janzteko, eragileentzako prestatutako planean.

Atal honetan formazio soziolinguistikoari jarri diogu azpimarra, baina horrekin batera, formazio teknikoa ere landuko dugu beharrak eta aukera baloratuta.

### 5.9. Komunikazioa:

Komunikazioa da beste ardatzetako bat. Balorazio-txostenean behar beste ez dugula asmatu jaso dugu, eta, besteak beste, horregatik kontratatu genuen bazkide profesional bat bi urterako. 2012 eta 2013 urte bereziak izan dira elkartearentzat (atzera begirako balorazio-lanaz gain, elkartearen 50. urteurrena eta etorkizuna jasotzeko bi dokumentuak izan ditugu mahai gainean), eta komunikazioaz arduratuko zuen pertsona bat kontratatzea erabaki zuen elkarteak. Bi urte horietan asko eta ondo landu da komunikazioa, baina aurrekontu-arazoak direla-eta, azken bi urteetan komunikazioaren ardura izan duen bazkide profesionalari ez diogu lan-kontratua berrituko. Horrek esan nahi du komunikazio-sisteman aldaketak egin beharko ditugula. Ez dugu komunikazioa bereziki landuko duen bazkide profesionalik izango, eta horrek nahitaez eragingo dio elkartearen komunikazio gaitasunari. Hala ere, komunikazioak daukan garrantziaz jabetzen gara, eta ahal dugun guztia egingo dugu azken bi urteotako komunikazio-proiektuari eusteko.

## 6. AURREKONTUA

Amaierarako laga ditugu diru-kontuak. 2014an egin eta lortu nahi dugunak dezenteko aurrekontua eskatzen du, eta diru-sarrerak eta –gastuak parera ekartzeko ahalegina egin dugu.

| 2014ko AURREKONTUA | | |
|---|---|---|
| **GASTUAK** | **620.387,43 €** | |
| **Funtzionamendu gastuak** | **33.952,50 €** | 5,47% |
| Mutualia | 5.000,00 € | |
| Fotokopiak | 2.550,00 € | |
| Nomina eta konta programa | 2.200,00 € | |
| Web orria | 800,00 € | |
| Kontribuzioa | 150,00 € | |
| Bankua eta posta | 1.450,00 € | |
| Dietak | 2.050,00 € | |
| Bulego materiala eta konponketak | 3.400,00 € | |
| Topagunea | 3.210,00 € | |
| Telefonoa | 4.100,00 € | |
| Aseguruak | 3.940,00 € | |
| Informatika gastua | 2.500,00 € | |
| Ura, Zaborrak, Extintorea estetika | 870,00 € | |
| Argindarra | 1.732,50 € | |
| **Programazioa** | **179.048,80 €** | 28,86% |
| Hedabideak | 63.071,80 € | |
| Idazkaritza | 6.280,00 € | |
| Asialdia | 71.200,00 € | |
| Ekipamenduak | 14.282,00 € | |
| Zerbitzuak | 18.315,00 € | |
| Autofinantzaketa | 5.900,00 € | |
| **Giza-baliabideak (17 lagun)** | **407.386,13 €** | 65,67% |

| | | |
|---|---|---|
| **SARRERAK** | **619.386,85 €** | |
| **Diru-laguntzak** | **226.741,85 €** | 36,61% |
| Elgoibarko Udala | 151.200,00 € | |
| Eusko Jaurlaritza | 32.031,45 € | |
| Foru Aldundia | 29.510,40 € | |
| Mendaroko Udala | 14.000,00 € | |
| **Bazkide kuotak** | **29.678,00 €** | 4,79% |
| **Zerbitzuak** | **362.967,00 €** | 58,60% |
| Zerbitzuak | 50.000,00 € | |
| Lizitazioa (Ludoteka+Gaztelekua) | 166.799,00 € | |
| BARRENeko publizitatea | 70.000,00 € | |
| Ekintza kuotak | 59.568,00 € | |
| Autofinantzaketa ekintzak | 16.600,00 € | |

| | |
|---|---|
| **EMAITZA** | **- 1.000,58 €** |

# 7. ERANSKINAK: HELBURU-FITXAK

KUDEAKETA PLANA 2014

| 1. ERRONKA: ELGOIBARKO IZARRAREN BUELTAKO HIZKUNTZ KOMUNITATE SENDOA OSATZEA ETA SARETZEA | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ESTRATEGIA | BAZKIDEEN KONPROMISOA ETA PARTE HARTZEA SUSTATU | | | | | | |
| HELBURUA | LANTALDE PROFESIONALA KOHESIONATZEA | | | | | | |
| INTERES TALDEA | BAZKIDE PROFESIONALAK | | | | | | |
| | EKINTZAK | | | | | HELBURUAREN NEURGAILUA | LORPENA |
| | LANTOKI BATERATUA LORTZEKO AUKERAK AZTERTU | LANTALDE PROFESIONALAREN EGOERAREN DIAGNOSIA EGIN | BI URTERAKO KOHESIO-PLANA ADOSTU | HIRU URTERAKO KOHESIO-PLANA MARTXAN JARRI | LANGILEEN ASEBETETZE MAILA JASO | Lantalde profesionala hasieran baino kohesionatuagoa dago? | |
| NOLA | Etxe agentziekin egon / Elgoibarko lokal hutsen azterketa egin / Aukeren azterketa egin / Erabakia hartu | Mutualiako txostena aztertu langile batzarrean / Bazkide profesionalekin mintegi bat egin | Proposamena prestatu / Bazkide profesionalen mintegia egin | | Banan-banako inkestak / Mintegi bateratua | | |
| NOIZ(KO) | Irailaren amaierarako | Otsailean | Apirila | ekainean | Abenduan | | |
| ARDURADUNA | IÑAKI KONDE | Imanol Larrañaga | Imanol Larrañaga | Imanol Larrañaga | Imanol Larrañaga | | |
| ZEINTZUK HARTUKO DUTE PARTE? | Iñaki Kondek, kudeatzaileak eta dinamizatzaileak | Bazkide profesionalek eta proiektu-buruek | Proiektu-buruek eta bazkide profesionalek | Kontratupeko bazkideek | Proiektu-buruek eta bazkide profesionalak | | |
| EKINTZAREN NEURGAILUA | Uztailerako aukera guztiak prest izan / irailean erabakia hartuta | Otsailerako diagnosia prest | Kohesio-plana prest azarorako | Proiektua martxan jartzea | Langileen %100a | | |
| EKINTZAREN LORPENA | | | | | | | |
| SAILA | ZB | Idazkaritza | Idazkaritza | Idazkaritza | Idazkaritza | | |
| DEDIKAZIOA | Iñaki Kondek lidergoa. Kudeatzaileak (25) / Dinamizatzaileak (12) | Dinamizatzailea (25) / Proiektu-buruak (6) | Dinamizatzailea (15) | | Dinamizatzaileak (12) / proiektu-buruek (4) | | |
| AURREKONTUA | Dedikazioa: 740 euro | Dedikazioa: 620 euro | Dedikazioa: 300 | | Dedikazioa: | | |
| 1. Jarraipena: APIRILEAN | | | | | | | |
| 2. Jarraipena: UZTAILEAN | | | | | | | |
| 3. Jarraipena: URRIAN | | | | | | | |

KUDEAKETA PLANA 2014

| 1. ERRONKA: ELGOIBARKO IZARRAREN BUELTAKO HIZKUNTZ KOMUNITATE SENDOA OSATZEA ETA SARETZEA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ESTRATEGIA | BAZKIDEEN KONPROMISOA ETA PARTE HARTZEA SUSTATU | | | | | |
| HELBURUA | 50 BAZKIDE GEHIAGO LORTZEA | | | | | |
| INTERES TALDEA | HERRITARRAK | | | | | |
| | EKINTZAK | | | | HELBURUAREN NEURGAILUA | LORPENA |
| | Bazkide kanpaina prestatu | Hedabideetan bazkide-kanpainaren berri emanez | Atxutxiamaika sailean | BARREN sailean Oharra: komunitatea martxan jartzen ez bada | Lortu dira 50 bazkide berri? | |
| NOLA | Lan-eremuak identifikatu eta promozioa prestatu | BARREN / prentsa / web orria / sare sozialak / ahoz aho ... | Udalekuetarako izena ematera datozen gurasoei bazkide izateko gonbitea egin | BARRENeko harpidedun guztiei El-ko bazkide izateko gonbitea egin, gutun batekin | | |
| NOIZ(KO) | Maiatza | Ekainak 1 eta 15 | Udalekuetan | Ekainean | | |
| ARDURADUNA | Imanol Larrañaga | Imanol Larrañaga | Imanol Larrañaga | Imanol Larrañaga | | |
| ZEINTZUK HARTUKO DUTE PARTE? | Dinamizatzaileak eta proiektu-buruek | Dinamizatzailea | Imanol eta Naiara Martin | Imanol eta Ainhoa Andonegi | | |
| EKINTZAREN NEURGAILUA | Plana prest dago? | Egin eta publikatu dira bi orriak? | Egin zaiei eskaintza gurasoei? | Banatu zaiei gutuna harpidedunei? | | |
| EKINTZAREN LORPENA | | | | | | |
| SAILA | Idazkaritza | Idazkaritza | Idazkaritza - Atxutxiamaika | Idazkaritza - BARREN | | |
| DEDIKAZIOA | Dinamizatzailea (6) | Dinamizatzailea (8) | Dinamizatzailea (2) / Naiara Martin (2) / Mikel Etxaniz (2) | Dinamizatzailea (2) | | |
| AURREKONTUA | 120 | Dedikazioa: 160 / Publizitate-kostua: 600 | 120 + 10 | 40 | | |
| 1. Jarraipen data APIRILEAN | | | | | | |
| 2. Jarraipen data UZTAILEAN | | | | | | |
| 3. Jarraipen data ABENDUAN | | | | | | |

KUDEAKETA PLANA 2014

| 1. ERRONKA: ELGOIBARKO IZARRAREN BUELTAKO HIZKUNTZ KOMUNITATE SENDOA OSATZEA ETA SARETZEA | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **ESTRATEGIA** | BAZKIDEEN KONPROMISOA ETA PARTE HARTZEA SUSTATU | | | | | | |
| **HELBURUA** | EREMU SINBOLIKOA OSATU ETA ELIKADURA-SISTEMA ADOSTU | | | | | | |
| **INTERES TALDEA** | BAZKIDEAK | | | | | | |
| | **EKINTZAK** | | | | | **HELBURUAREN NEURGAILUA** | **LORPENA** |
| | ES osatuko dutenen zerrenda osatu | ESren eratze-batzarra egin | Mintegia egin, pentsamendua adostu eta 2 urterako kelikatze-sistema adosteko | ESren elikatze-prozesuari ekin | | Osatu dugu Eremu Sinbolikoa? Jarri da martxan? | |
| **NOLA** | Bazkide guztiei gutuna bidali / aukeratuen zerrenda egin / elkarrizketak egin / erantzunak jaso | ESren arrazoiak eta egitekoak adostu / Organoak eta funtzionamendua adostu | 2 batzar-mintegi: bat, pentsamendua; bi, elikatze-sistema | | | | |
| **NOIZ(KO)** | Urtarrila eta otsailerako | Martxoan | Maiatza eta ekaina | Irailetik abendura | | | |
| **ARDURADUNA** | Imanol Larrañaga | Imanol Larrañaga | Imanol Larrañaga | Imanol Larrañaga | | | |
| **ZEINTZUK HARTUKO DUTE PARTE?** | Dinamizatzailea eta ZB | Dinamizatzaikeak eta bazkideek | Dinamizatzaileak eta bazkideek | Dinamizatzaileak eta bazkideek | | | |
| **EKINTZAREN NEURGAILUA** | Zerrenda prest egotea | Osatu da ES-a? | Egin da harrera-plana? Onartu da elikatze-sistema? | Ekin diogu elikatze-prozesuari? | | | |
| **EKINTZAREN LORPENA** | | | | | | | |
| **SAILA** | Idazkaritza | Idazkaritza | Idazkaritza | Idazkaritza | | | |
| **DEDIKAZIOA** | Dinamizatzailea (35) / ZBk (2) | Dinamizatzailea (10) | Dinamizatzaileak (30) | | | | |
| **AURREKONTUA** | Dedikazioa: 700 / Gutun-banaketa: 200 | 200 euro | 600 | | | | |
| **1. Jarraipen data APIRILEAN** | | | | | | | |
| **2. Jarraipen data UZTAILEAN** | | | | | | | |
| **3. Jarraipen data ABENDUAN** | | | | | | | |

KUDEAKETA PLANA 2014

| 1. ERRONKA: ELGOIBARKO IZARRAREN BUELTAKO HIZKUNTZ KOMUNITATE SENDOA OSATZEA ETA SARETZEA | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ESTRATEGIA | BAZKIDEEN KONPROMISOA ETA PARTE HARTZEA SUSTATUZ | | | | | | |
| HELBURUA | BAZKIDEEN KONPROMISOA ETA PARTE-HARTZEA SUSTATUKO DUEN PROIEKTUA ONARTU ETA MARTXAN JARRI | | | | | | |
| INTERES TALDEA | BAZKIDEAK | | | | | | |
| | EKINTZAK | | | | | HELBURUAREN NEURGAILUA | LORPENA |
| | Proiektuaren borradorea aztertu | Iritzi-ekarpenak jaso eta behin betiko parte-hartze proiektua adostu | Proiektuan onartutakoa betetzeko lan-metodologia prestatu eta martxan jarri | | | Lortu dugu bazkideen konpromisoa eta parte-hartzea | |
| NOLA | Dinamizatzaileak / ZBk / bazkide militanteek | Bazkide militanteen mintegi batean | Lan- eta segimendu-metodologia prestatu / martxan jarri | | | | |
| NOIZ(KO) | Otsailaren 28rako | Apirila | Maiatza-ekaina | | | | |
| ARDURADUNA | Imanol Larrañaga | Imanol Larrañaga | Imanol Larañaga | | | | |
| ZEINTZUK HARTUKO DUTE PARTE? | Dinamizatzailea, ZB eta bazkide militanteak | Bazkide militanteak | Bazkide militanteak | | | | |
| EKINTZAREN NEURGAILUA | Egin da azterketa? | Onartu da parte-hartze proiektua? | Jarri da martxan proiektua? | | | | |
| EKINTZAREN LORPENA | | | | | | | |
| SAILA | Idazkaritza | Idazkaritza | Idazkaritza | | | | |
| DEDIKAZIOA | Dinamizatzailea (10) | Dinamizatzailea (20) | Dinamizatzailea (10) | | | | |
| AURREKONTUA | 200 | 400 | 200 | | | | |
| 1. Jarraipen data APIRILEAN | | | | | | | |
| 2. Jarraipen data UZTAILEAN | | | | | | | |
| 3. Jarraipen data ABENDUAN | | | | | | | |

KUDEAKETA PLANA 2014

| 2. ERRONKA: ELGOIBARKO IZARRA EKONOMIKOKI BIDERAGARRIA IZATEA | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ESTRATEGIA | HERRITAREN DIRU EMANA GEHITUZ | | | | | | |
| HELBURUA | BARRENen hiru urterako komunitate ekonomikoa osatu eta lehen diru-emana jasotzea | | | | | | |
| INTERES TALDEA | Harpidedunak | | | | | | |
| | EKINTZAK | | | | | HELBURUAREN NEURGAILUA | LORPENA |
| | KOMUNITATE EKONOMIKOAREN PROIEKTUA IDATZI | Proiektua onartu | PROIEKTUAREN ATAL EKONOMIKOA MARTXAN JARRI | Lehen urteko balorazioa egin ETA 2015EKO HELBURUAK JARRI | | 2100 euro lortzea herritarren ekarpenetatik | |
| NOLA | Komunitatea martxan duten hedabideen aholkularitzarekin, lantaldearekin eta dinamizatzailearekin | ZB +ES | Proiektuari babes ekonomikoa emango dion kanpaina eginez. | Parte-hartzea eta diru-bilketa baloratuz | | | |
| NOIZ | URTARRILA | ASTE SANTUA | MAIATZA | AZAROA | | | |
| ARDURADUNA | AINHOA ANDONEGI | Ainhoa Andonegi | Ainhoa Andonegi | Ainhoa Andonegi | | | |
| ZEINTZUK HARTUKO DUTE PARTE? | Hedabide Saileko zuzendariak eta kudeatzaieak | ZB + ES | | ARDURADUNA + KUDEATZAILEA + ZB | | | |
| EKINTZAREN NEURGAILUA | Urtarrilean | Aste Santurako aurkeztuta + ONARTUTA egotea | 2100 euro LORTZEA | BALORAZIOA EGIN | | | |
| EKINTZAREN LORPENA | | | | | | | |
| SAILA | Hedabideak | Hedabideak | Hedabideak | Hedabideak | | | |
| DEDIKAZIOA | zuzendaria (10) + kudeatzailea (10) | zuzendaria (2) eta kudeatzailea (2) | | 8 ORDU (4 + 4) | | | |
| AURREKONTUA | 400 euro | 80 euro | | | | | |
| 1. Jarraipen data APIRILEAN | | | | | | | |
| 2. Jarraipen data UZTAILEAN | | | | | | | |
| 3. Jarraipen data ABENDUAN | | | | | | | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **ERRONKA** | **2. ELGOIBARKO IZARRA EKONOMIKIKO BIDERAGARRIA IZATEA** | | | | | |
| **ESTRATEGIA** | **2.1 DIRU-LAGUNTZAK MANTENDUZ EDO GEHITUZ** | | | | | |
